



**BAZTANGO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAK  
EGINDAKO BILKURAREN AKTA: 2016/10/27**

2016ko urriaren 27an goizeko 8:00etan Baztango Udalak Tokiko Gobernu Batzordea ohiko eta lehenengo deian osatu zuen arauzko moduan deitu ondotik. **JOSEBA OTONDO** alkatea mahaiburu izanik, ondoko zinegotziak bertaratu ziren:

**ACTA DE LA JUNTA DE GOBIERNO LOCAL CELEBRADA  
POR EL AYUNTAMIENTO DE BAZTAN EL DÍA 27/10/2016**

*En Elizondo y casa consistorial, siendo las 8:00 horas del día 27 de octubre de 2016, se reúne el Ayuntamiento de Baztan constituido en Junta de Gobierno Local, en sesión ordinaria y primera convocatoria, tras haber sido convocada la misma en forma legal. Presidida por el alcalde **JOSEBA OTONDO** y con la asistencia de los siguientes concejales:*

- .- MIKEL ORTEGA**
- .- MAITE ITURRE**
- .- FLORENTINO GOÑI**
- .- IÑIGO ITURRALDE**

Eta idazkari lanetan, korporaziokoa, Ainara Armendariz Castien

*Asistiendo como secretaria, la titular de la corporación, Ainara Armendariz Castien*

**1.- AURREKO AKTAK**

Tokiko Gobernu Batzordeak 2016/10/07an eta 2016/10/14an egindako bilkuren aktak onartu ditu.

*Se aprueban las actas de las sesiones de la Junta de Gobierno Local de 7/10/2016 y de 14/10/2016.*

**2.- HIRIGINTZA**

**2.1 FERMIN IPARRAGIRRE MIURAK** 2016/10/20an obra baimena eskatu zuen Elizondon, Santiago karrikan 78, 3-An dagoen etxebizitzan bi komunetako paretak berritzeko. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1610i034) ikusirik eta eskaera indarrean dagoen araudiarekin eta Baztango Udal Plangintzarekin kontra egiten ez duelarik ustez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Obra baimena ematea, jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenik kaltetu gabe eta baldintza hauekin:

.- Igortzen den hirigintzako aholkulariaren txostenean agertzen direnak (erref. 1610i034).

.- Sortzen diren obra-hondakinak zabortegira eraman beharko dira.

.- Jabari publikoan seinaleak jarri behar badira, elebiz (Euskara-gaztelania) izango dira.

.- EIOZ: Indarrean dagoen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko-zerga obren betearazte materialaren aurrekontuaren %4a da. Aurrekontu hori 590,00 € izanik, behin-behineko ordainketa gisa 23,60 euro ordaindu beharko dira.

2.- Baimenaren baliozkotasuna obra hasteko urte 1ekoa da eta 3 urtekoa obra bukatzeko. Luzapena baimena bukatu baino 2 hilabete lehenago eskatu beharko da.

3.- Jakinarazten dizuegu obra bukatutakoan udal langileak obra ikustera pasatzen ahal direla, zer obra egin den egiaztatzeko.

4.- Akordio hau interesatuari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

*2.1 Con fecha 20/10/2016 **FERMIN IPARRAGIRRE MIURA** solicitó licencia de obras para alicatar dos baños de la vivienda sita en Elizondo, calle Santiago, nº 78, 3-A. Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref.1610i034), considerándose conforme con las determinaciones al efecto contenidas en el Plan Municipal de Baztan, así como con las disposiciones legales vigentes aplicables, la Junta de Gobierno Local acuerda:*

*1.- Conceder la preceptiva licencia de obras, todo ello, excepto derecho de propiedad, sin perjuicio de terceros y con los siguientes condicionantes:*

*.- Las contenidas en el informe del técnico municipal en urbanismo, (ref. 1610i034), cuya copia se adjunta.*

*.- El escombros deberá ser vertido en un vertedero autorizado.*

*.- En caso de tener que poner señales en el espacio público, éstas habrán de ser en bilingüe (Euskara-castellano).*

*.- ICIO: Siendo el impuesto de construcciones, instalaciones y obras vigente el equivalente al 4 % del presupuesto de ejecución material de las obras y éste es de 590,00 €, la cantidad a liquidar en concepto de liquidación provisional es de 23,60 euros.*

*2.- La eficacia de la licencia es de 1 año para iniciar las obras y 3 para concluir las. La prórroga, en su caso, deberá solicitarse 2 meses antes de que caduque la licencia.*

*3.- Le comunicamos que al finalizar la obra es posible que un trabajador municipal visite la obra para comprobar que ha sido efectivamente realizada.*

*4.- Notificar el presente acuerdo al interesado, para su conocimiento y efectos oportunos.*

**2.2 MARIANA E. ISTILART ARRAZTOAK** 2016/09/26an obra baimena eskatu zuen Elizondoko Beartzungo Katalinkonea etxean leihoa dagoen tokian ate bat jartzeko terrazara ateratzeko. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1610i030) ikusirik eta eskaera indarrean dagoen araudiarekin eta Baztango Udal Plangintzarekin kontra egiten ez duelarik ustez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

*2.2 Con fecha 26/09/2016 **MARIANA E. ISTILART ARRAZTOA** solicitó licencia de obras para abrir una puerta en el hueco de la ventana de la casa Katalinkonea, para poder salir a la terraza, en Beartzun, Elizondo. Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref.1610i030), considerándose conforme con las determinaciones al efecto contenidas en el Plan Municipal de Baztan, así como con las disposiciones legales vigentes aplicables, la Junta de Gobierno Local acuerda:*

1.- Obra baimena ematea, jabetza eskubidea izan ezik, hirugarrenik kaltetu gabe eta baldintza hauekin:

.- Igotzen den hirigintzako aholkulariaren txostenean agertzen direnak (erref. 1610i030).

.- Sortzen diren obra-hondakinak zaborteigira eraman beharko dira.

.- Jabari publikoan seinaleak jarri behar badira, elebiz (Euskara-gaztelania) izango dira.

.- EIOZ: Indarrean dagoen eraikuntza, instalazio eta obren gaineko-zerga obren betearazte materialaren aurrekontuaren %4a da. Aurrekontu hori 741,00 € izanik, behin-behineko ordainketa gisa 29,64 euro ordaindu beharko dira.

2.- Baimenaren baliozkotasuna obra hasteko urte 1ekoa da eta 3 urtekoa obra bukatzeko. Luzapena baimena bukatu baino 2 hilabete lehenago eskatu beharko da.

3.- Jakinarazten dizuegu obra bukatutakoan udal langileak obra ikustera pasatzen ahal direla, zer obra egin den egiaztatzeko.

4.- Akordio hau interesatuari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

**2.3 MARTIN ARRAZTOA MENDICOAK** 2016/10/14an Elizondoko Jaime Urrutia karrikako 37. zenbakian dagoen lokalean lanen bideratze zuzena bermatzeko ezarritako **abala itzultzea** eskatu zuen. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1610i028) ikusirik eta eskaera indarrean dagoen araudiarekin eta Baztango Udal Plangintzarekin kontra egiten ez duelarik ustez, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Abalaren itzulpena onartzea.

2.- Akordio hau interesatuari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

**2.4 Juan Orozek HMB OBRAS Y SERVICIOS**en izenean 2016/10/19an Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte frontoiko teilatu berriaren dokumentazio teknikoa aurkeztu zuen, Baztango Udaleko hirigintzako aholkulariak onartzeko. Hirigintzako udal aholkulariaren txostena (erref. 1610i027) ikusirik, Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Onartzea Elizondoko Francisco Joaquin Iriarte udal frontoiari lehorra emateko esleipenduna den "HMB Obras y Servicios" enpresaren bidez "Beguiristain Oroz Arquitectura" prestatutako dokumentu teknikoa.

2.- Akordio hau "HMB Obras y Servicios" enpresari, Iñigo Iturralde kirol arloko zinegotziari eta kirol teknikariari helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

### **3.- ESKAERAK**

#### **4.- BESTEAK**

**4.1 JOSEBA OTONDO** alkateak proposatu du Nafarroako Gobernua/NASUVINSArekin lankidetzeta-hitzarmena sinatzea Baztango Udala "alokairu-poltsa" etxebizitza programaren erakunde laguntzaile izendatzeko. Proposamena ikusita Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Conceder la preceptiva licencia de obras, todo ello, excepto derecho de propiedad, sin perjuicio de terceros y con los siguientes condicionantes:

.- Las contenidas en el informe del técnico municipal en urbanismo, (ref. 1610i030), cuya copia se adjunta.

.- El escombros deberá ser vertido en un vertedero autorizado.

.- En caso de tener que poner señales en el espacio público, éstas habrán de ser en bilingüe (Euskara-castellano).

.- ICIO: Siendo el impuesto de construcciones, instalaciones y obras vigente el equivalente al 4 % del presupuesto de ejecución material de las obras y éste es de 741,00 €, la cantidad a liquidar en concepto de liquidación provisional es de 29,64 euros.

2.- La eficacia de la licencia es de 1 año para iniciar las obras y 3 para concluir las. La prórroga, en su caso, deberá solicitarse 2 meses antes de que caduque la licencia.

3.- Le comunicamos que al finalizar la obra es posible que un trabajador municipal visite la obra para comprobar que ha sido efectivamente realizada.

4.- Notificar el presente acuerdo a la interesada, para su conocimiento y efectos oportunos.

**2.3 Con fecha 14/10/2016 MARTIN ARRAZTOA MENDICOA** solicitó la **devolución** del **aval** constituido para la correcta ejecución de los trabajos realizados en el local de la calle Jaime Urrutia 37 de Elizondo. Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref. 1610i028), considerándose conforme con las determinaciones al efecto contenidas en el Plan Municipal de Baztan, así como con las disposiciones legales vigentes aplicables, la Junta de Gobierno Local ha resuelto:

1.- Conceder la devolución del aval.

2.- Notificar el presente acuerdo al interesado, para su conocimiento y efectos oportunos.

**2.4 Con fecha 19/10/2016 Juan Oroz** en representación de **HMB OBRAS Y SERVICIOS** entregó la documentación técnica de la nueva cubierta del frontón Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo para su aprobación por parte de los servicios de asesoramiento urbanísticos del Ayuntamiento de Baztan. Teniendo en cuenta el informe del técnico municipal en urbanismo (ref.1610i027), la Junta de Gobierno Local acuerda:

1.- Aprobar el documento técnico del proyecto de ejecución de cubierta del frontón municipal Francisco Joaquín Iriarte de Elizondo redactado por "Beguiristain Oroz Arquitectura" por medio de la empresa adjudicataria del contrato "HMB Obras y Servicios"

2.- Notificar el presente acuerdo a la empresa "HMB Obras y Servicios", al concejal de deporte Iñigo Iturralde y a la técnica de deporte, para su conocimiento y efectos oportunos.

**4.1 El alcalde JOSEBA OTONDO** ha propuesto aprobar un convenio de colaboración con el Gobierno de Navarra/NASUVINSA por el que se declara al Ayuntamiento de Baztan entidad colaboradora del programa de vivienda "bolsa de alquiler". Vista la propuesta la Junta de Gobierno Local acuerda:

1.- Onartzea Nafarroako Gobernua/NASUVINSArekin lankidetzaz hitzarmena sinatzea Baztango Udala "alokairu-poltsa" etxebizitza programaren erakunde laguntzaile izendatzeko eta alkateari baimena ematea hitzarmena sinatzeko.

2.- Akordio hau Nafarroako Gobernua/NASUVINSARI helaraztea, bere ezaguera eta ondorioetarako.

**4.2 JOSEBA OTONDO** alkateak proposatu du "etxebizitza gabetzeak saihesteko jarduera-protokoloa" onartzea. Bertan finkatzen dira udaleko Gizarte Zerbitzuek eta Alkatetzak burutuko dituzten jarduerak etxebizitza kasu baten aurrean. Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du protokoloa onartzea eta akordio hau argitaratzea iragarki oholean, web orrialdearen eta bertako komunikabideen bidez.


**4.3 MAITE ITURRE** zinegotziak azaldu du "Saharaztan" taldeak Baztango museorako 30 sarrera ematea eskatu duela, urriaren 28an eta 29an, udazkeneko ferietan paratuko duen elkartasun tonbolarako sari gisa. Proposamena ikusita Tokiko Gobernu Batzordeak erabaki du:

1.- Onartzea Saharaztan taldearen eskaera eta urriaren 28 eta 29an, udazkeneko ferietan paratuko duen tonbolarako Baztango Museorako 30 sarrera ematea.

2.- Akordio hau Saharaztan taldeari, kultura teknikariari eta Maite Iturre zinegotziari helaraztea.

Eta aztertzeko gai gehiagorik ez dagoenez, 9:00etan alkateak bilera amaitutzat eman du. Nik, idazkari naizen honek, hori guztia idazten eta ziurtatzen dut.

ONIRITZIA / Vº Bº  
ALKATEA / EL ALCALDE  
JOSEBA OTONDO BIKONDOA



IDAZKARIA / LA SECRETARIA

1.- Aprobación del convenio de colaboración con el Gobierno de Navarra/NASUVINSA por el que se declara al Ayuntamiento de Baztan entidad colaboradora del programa de vivienda "bolsa de alquiler" y autorizar al alcalde para la firma del convenio.

2.- Notificar este acuerdo al Gobierno de Navarra/NASUVINSA, para su conocimiento y efectos.

**4.2 El alcalde JOSEBA OTONDO** ha propuesto la aprobación de un protocolo de actuación en casos de desahucios de viviendas, donde se concretan las actuaciones a realizar tanto por los Servicios Sociales municipales como por Alcaldía ante este tipo de situaciones. La Junta de Gobierno Local acuerda aprobar el protocolo planteado y publicitar este acuerdo en el tablón de anuncios, en la página web municipal y en los medios de comunicación locales.

**4.3 La concejala MAITE ITURRE** ha explicado que la Asociación "Saharaztan" ha solicitado que con motivo de la tómbola solidaria que van a organizar los días 28 y 29 de octubre, ferias de otoño, el Ayuntamiento les dé 30 entradas para el museo de Baztan para sortearlas. Vista la propuesta la Junta de Gobierno acuerda:

1.- Aceptar la solicitud y dar a la asociación Saharaztan 30 entradas para el museo de Baztan para sortearlas en la tómbola solidaria que con motivo de las ferias de otoño han organizado para los días 28 y 29 de octubre.

2.- Notificar este acuerdo a la Asociación Saharaztan, a la técnica de cultura y a la concejala Maite Iturre.

Y no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde levanta la sesión a las 9:00 horas, de lo que yo, la secretaria, doy fe.

